

IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARI DAGOZKION HAINBAT LANPOSTU HUTS LEKUALDATZE-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAK, ENPLEGU PUBLIKOAN DAGOEN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIAK EZARTZEN DITUEN 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA.

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko maiatzaren 15ean hartutako erabakien bidez onetsi zen egonkortzeko lan-eskaintza publikoan (JOB 12_MAY_22, 97. NAO n dago aipamena, 2022ko maiatzaren 19koan) agertzen diren lanpostuak betetzeko deitzen diren lekualdatze-lehiaketetan uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 10. artikuluan zehazten den merezimenduen baremoa aplikatzea.

Ondorioz, Iruñeko Udaleko Pertsonen Kudeaketako alorreko zuzendariak, 2023ko uztailaren 19ko ebazpenaren bidez, honako hau ebatzi du:

1. Onestea Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko I. eranskinean zerrendatutako lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiak, bai eta horien oinarriak ere.
2. Deialdi hauek eta horien oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman daitezzen agintzea.

Deialdi hauek eginen dira aplikatu beharreko araudian xedatutakoari eta oinarri hauetan ezarritakoari jarraikiz.

OINARRIAK

1.-Deialdien xedea eta aplikatzekoa den araudia.

1.1. Deialdi honen xedea da, lekualdatze-lehiaketaren bidez, lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioak betez, I. eranskinean zerrendatutako lanpostu hutsak betetzea, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko.

1.2. Lanpostu kopurua, maila-eskakizunak, lanpostua, titulazioa, kokapena, araubide juridikoa, lanaldia, hizkuntza eskakizuna eta lanpostuen gainerako ezaugarriak I. eranskinean xehatuta daude.

1.3. Prozedura hau gauzatzeko, honako hauetan xedatutakoa beteko da: 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko



neurriena; 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze-prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz; 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena; 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duena; 215/1985 Foru Legea, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duena, aplikatzekoak diren gainerako arauak eta deialdi honetako oinarriak.

2. -Deitutako lanpostuak.

2.1. Lekualdatze-lehiaketa bidez lanpostuak betetzeko deialdi honetan, hasiera batean l. eranskinean jasotako lanpostu hutsak betetzeko deia egiten da, baita lehiaketan beste lanpostu bat eskuratzen duten izangaiek hutsik uzten dituzten lanpostuak betetzeko ere. Dena den, ez dira eskainiko lekualdatze-lehiaketan beste lanpostu bat lortu duten izangaiek hutsik uzten dituzten lanpostuak, baldin eta lanpostu horiek "iraungitzeak" direlako bete behar ez badira.

2.2. Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen lekualdatze-lehiaketan parte hartzen duten langileei ez zaie aldatuko lehiaketan parte hartu aurretik zuten araubide juridikoa.

2.3. Era berean, lanpostu horiek deialditik kanpo uzten ahalko dira, dela birkokatze prozesuei lotuta gelditzen direlako, dela jarduneko zerbitzura itzultzen direnei esleitzen zaizkielako nahiz antolamendu juridikoan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

2.4. Nafarroako edozein administrazio publikotan 2009/01/01aren ondoren sartu direnek, dagozkien hautaprobak gainditu ondoren, euskara edo Europar Batasuneko hizkuntzaren bat jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuetan, hizkuntza hori jakitea derrigorrezkoa duten lanpostu hutsak betetzeko bakarrik parte hartzen ahalko dute.

Dena den, aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, jakin behar den hizkuntza kontuan hartu gabe, hautapen-prozesuko emaitzak aukera eman balio interesdunari baldintza hori ezarrita ez zeukan lanpostu bat eskuratzeko.

2.5. Lanpostu hutsak betetzearen ondorioz hutsik geratutako lanpostuak egonkortzeko hautapen-prozeduran sartuko dira, eta merezimendu- eta/edo oposizio-lehiaketa bidez bete.

3.-Betekizunak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Iruñeko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako langile finkoak izatea, haien egoera administratiboa edozein dela ere.



- b) Deialdiaren xede den lanpostu berean izendatua izatea.
- c) I. eranskinean hala zehazten bada, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera, adingabeekin ohiko harremana duten lanpostuetan aritzeko baldintza da epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexuaskatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik edo gizakien salerosketarengatik.
- d) I. eranskinak hala zehazten badu eta euskara derrigor jakitea eskatzen duen lanpostu batera sartu nahi bada, lanposturako eskatutako maila egiaztatzen duen titulu edo egiaztagirietako bat eduki beharko da, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean jasota daudenetako bat (117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2010eko irailaren 27koa), edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa.
- e) Subrogazio-prozesuetatik datozen langile finkoak haien produkzio-unitateari atxikita dauden lekualdatze-lehiaketetara soilik aurkezteko ahalikoa dira.
- f) Hala badagokio, eskuratu nahi den lanposturako ezarritako beste betekizun gehigarri batzuk izatea, I. eranskinean zehazten direnak.
- 3.2. Betekizun horiek parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta eduki beharko dituzte izangaiek, eta plazaren jabetza hartu arte mantendu beharko dira.
- 3.3. Izangaiek deialdi honen oinarrietan ezartzen den unean frogatu beharko dituzte aurreko baldintza horiek.
- 3.4. Lanpostuaren erreserbarik gabeko eszedentzian dauden Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileak zerbitzu aktibora itzultzen ahalikoa dira lekualdatze-lehiaketaren deialdian parte hartuta.
- 3.5. Zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batean daudenek zerbitzu aktibora itzultzeko legeko eta arauko betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute deialdi honetarako eskabideak aurkezteko ezarritako epearen azken egunean.
- 3.6. Lanpostu huts bati behin-behineko atxikitako zerbitzu aktibora itzuli diren langileak kasuan kasuko lanpostuaren lekualdatze-lehiaketaren deialdira aurkeztu beharko dira, behin betiko destinoa esleitzeko.



4.-Eskaerak eta dokumentazioa.

4.1. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskaera telematikoki aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraiki: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi bakoitzari dagokion aipamenean.

Lehiakideek ez dute merezimenduei buruzko inolako agiririk aurkeztu beharko; izan ere, administrazio publikoetan egindako zerbitzuak baloratuko dira merezimendu bakar gisa (deialdia argitaratzen den egunera arte Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aitortuta duten antzintasuna kontuan hartuko da, 1 puntu emanez urte bakoitzeko). Informazio hori zuzenean gehituko zaio izangai bakoitzaren espediente pertsonalari, eta epaimahaiaren esku jarriko da barematu dezan.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

4.3. Betekizunak egiaztatzea.

Euskara jakitea betekizun gisa duen lanpostu batera sartu nahi dutenek, lanpostu hutserako eskatutako maila egiaztatzen duen titulu edo egiaztagirietako bat aurkeztu beharko dute, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean jasota daudenetako bat, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa.

5. Lehiakideen onarpena.

5.1. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, deialdi bakoitzeko izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko da, eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratzeko aginduko da, dagokion deialdiaren fitxan.

5.2. Behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hiru egun naturaleko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haien zuzentzeko. Erreklamazioak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpenean zehazten den bidetik aurkeztuko dira.

Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, organo eskudunak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaritzen duen administrazio-egintza emanen du. Administrazio-egintza hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta deialdiaren web-fitxan argitaratu beharko da.



5.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, deialdi bakoitzean onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da, dagokion deialdiaren web-fitxan.

Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta Iruñeko Udalaren webguneko deialdiaren fitxan argitaratuko da.

5.4. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi bertan ageri direnei aitortzen zaienik betetzen dituztela ebazpen honen bidez iragartzen den prozeduran eskatutako baldintzak. Hautapen-prozesua gainditu ondoren izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzen denean egiaztatzen bada ez dutela baldintzaren bat betetzen, interesdunek prozedura honetan parte hartzeagatik izaten ahal dituzten eskubide guztiak galduko dituzte, ezertan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

6. Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Honako hauek osatuko dute lekualdatze-lehiaketetako epaimahaia:

-Epaimahaiburua: Paula Unanua Albéniz, Iruñeko Udaleko Aholkularitza Juridikoko legelaria.

Epaimahaiburu ordezkoa: Benita Soteras Ramírez, Iruñeko Udaleko Pertsonen Kudeaketako idazkari teknikoa.

-Epaimahaikidea: Blanca Elizaga Laguardia, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria.

Epaimahaikide ordezkoa: Mónica Sánchez Ibáñez, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria.

-Epaimahaikide-idazkaria: Marta Martínez Llobet, Iruñeko Udaleko Pertsonen Kudeaketako eta Antolaketako teknikaria.

-Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Pertsonen Kudeaketako eta Antolaketako teknikaria.

6.2. Epaimahaia eratzen ahalko da deialdiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

6.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezekoek, kontuan harturik ordezko izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.



6.4. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

6.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

7.-Merezimenduen kalifikazioa.

7.1. Deitutako lekualdatze-lehiaketen deialdietan administrazio publikoetan egindako zerbitzuak baloratuko dira merezimendu bakar gisa: deialdia argitaratzen den egunera arte Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aitortuta duten antzintasuna kontuan hartuko da, 1 puntu emanek urte bakoitzeko.

Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituiko zaio.

Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.

7.2. Behin kalifikazioa amaituta, epaimahaiak dagokion deialdiaren web-fitxan argitaratuko du merezimenduen behin-behineko balorazioa, eta 5 egun balioduneko epe bat emanen da, argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek erreklamazioak egin ditzaten eta eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten balorazioei dagokienez.

7.3. Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, kalifikazio-epaimahaiak merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratuko du Udalaren webgunean, deialdi bakoitzaren fitxan.

7.4. Lehiakideek guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan zerbitzuan denbora gehien eman dutenen alde joko da. Berdinketak bere horretan badirau, kalifikazio-epaimahaiak xede horrekin eginen duen zozketa bakarraren bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan ateratzen den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiaturik.

8.- Lanpostu hutsak hautatzea.

8.1. Behin aurreko izapide hori bete ostean, parte-hartzailearen eskura jarriko da hautatzen ahal dituen lanpostuen zerrenda, hala hasierakoak nola lekualdatzeen ondorioz geratzen ahal direnak. Informazio hori deialdi bakoitzaren fitxan argitaratuko da Udalaren webgunean.



8.2. Aldi berean, 5 egun naturaleko epea irekiko da parte-hartzaileek eskaera telematikoki egin dezaten, Erregistro Elektronikoen bidez. Horretarako, nahi diren plazak zerrendatu beharko dituzte lehentasun-ordenaren arabera, bai hasierakoak, bai lekualdatzeen ondorioz hutsik geratzen ahal direnak.

Deialdia egin duen organoak hautaketa- eta esleipen-ekitaldia egingen du, puntuazio-ordena kontuan hartuta.

Hautaketaren emaitzari buruzko informazioa Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da.

8.3. Lanpostuak hautatzeko epea amaitu ondoren, lehiakideek ezin izanen diote uko egin egindako hautaketari.

8.4. Adierazitako epearen barruan, eta behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuetan salbu, lanposturik aukeratzen ez dutenek eskubide guztiak galduko dituzte lehiaketaren xede diren lanpostu hutsak betetzeko.

9.–Lanpostuen esleipena eta jabetza.

9.1. Lehiakideei plazak ebazpen bidez esleitu zaizkie, ateratzen den lehentasun-ordenaren arabera aukeratzen dituzten lanpostu hutsen arabera. Ebazpen horretan ezarriko da prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiak lanean hasteko data bakarra, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Izendapenaren aurretik, lehiakideek deialdian eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatuko da. Iruñeko Udalak ez badu betekizunen bat betetzen duela egiaztatzeko frogarik, interesdunari dagokion dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio. Deialdian eskatutako betekizunen bat ez bada egiaztatzen, izangaia ezin izanen da izendatu.

Lanpostu hutsak hautatzeak esan nahi du lehiakideak berariaz onartzen duela esleitu zaion plaza, berak adierazi dituen artean, eta ezin izanen dio uko egin.

9.2. Lekualdatze-lehiaketan parte hartzen duten langileei ez zaie aldatuko lehiaketan parte hartu aurretik zuten araubide juridikoa.

9.3. Lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko prozedurak egonkortze-prozesuetan lanpostuak esleitu aurretik ebatziko dira.

10.–Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.



Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta haiek aplikatzeko epaimahaia sorburu ez duten egintzen aurka, errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertzeako errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsioak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2023ko uztailaren 19a Pertsonen Kudeaketako alorreko zuzendaria, María Aránzazu Arias Leiro.

I. ERANSKINA

ESKAINITAKO LANPOSTUEN EZAUGARRIAK

Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Kokapena	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
ARKITEKTOA	A	100002-3	Hirigintza Gerentzia		Funtzionarioa	Lizentzia- edo Gradu-titulua Arkitekturan
		100002-4				
		100503-9	Garapen Jasangarria eta Proiektu Estrategikoak			
PSIKOLOGOA (*)	A	100517-5	Gizarte Zerbitzuak		Funtzionarioa	Lizentzia- edo Gradu-titulua Psikologian
		119	Udaleko haur-eskolak			
INDUSTRIA-INGENIARI TEKNIKOA	B	200209-6	Herritarren Segurtasuna		Funtzionarioa	Industria Ingeniaritza Teknikoko titulua edo Gradu-titulua Industria Ingeniaritzan
ERDI-MAILAKO TITULUDUNA BATERAEZINTASUNAZ	B	200200-13	Turismo eta Merkataritza Sustapena		Funtzionarioa	Unibertsitateko Gradu-titulua, Unibertsitateko Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoko titulua, Arkitektura Teknikoko titulua edo horien baliokidetzat jotzen den titulua.
		200200-47	Ogasuna			Diplomatura- edo Gradu-titulua Enpresa Zientzietan edo Zuzenbideko horren baliokidean, EAZn edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietan
		200200-48				
		200200-49				

		200200-52				
Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Kokapena	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
ARKITEKTO TEKNIKOA	B	200204-1	Garapen Jasangarria eta Proiektu Estrategikoak		Funtzionarioa	Arkitektura Teknikoko titulua edo Gradu- titulua Arkitektura Teknikoan
		200204-2				
		200204-3	Hirigintza eta etxebizitza		Lan- kontratuduna	
		200204-16				
		208800-1	Gizarte Zerbitzuak			
GIZARTE-LANEKO ERDI-MAILAKO TITULUDUNA, OSAGARRIDUNA (*)	B	201000-1	Gizarte Zerbitzuak		Funtzionarioa	Gradu- edo Diploma-titulua Gizarte Lanean
		201000-2				
		201000-3				
		201000-4				
		201000-6				
		201000-7				
		201000-8				
		201000-9				
		201000-10				
		201000-11				



		201000-12				
		201000-29				
		201000-5			Lan- kontratuduna	
Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Kokapena	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
OFIZIAL ADMINISTRARIA (300100) ETA OFIZIAL ADMINISTRARI OSAGARRIDUNA (300300)	C	300100-1	Pertsonen Kudeaketa		Funtzionarioa	Batxilergoko titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien baliokidea
		300100-72				
		300100-105				
		300100-17	Ogasuna			
		300100-22				
		300100-85				
		300100-36	Hirigintza eta etxebizitza			
		300100-76				
		300100-45	Etxebizitzen Birgaitzea			
		300100-126				



		300100-63	Herritarren Segurtasuna	C1		
		300100-187	Aholkularitza juridikoa			
		300300-4	Gizarte Zerbitzuak			
		300300-20				

Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Alorra	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA (400000; 400001) ETA ADMINISTRARI LAGUNTZAILE OSAGARRIDUNA (404800)	D	400000-50	Herritarren Segurtasuna	C1	Funtzionarioa	DBHko graduatu-titulua, Eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideak
		400000-90				
		400000-198				
		400000-81	Pertsonen kudeaketa	C1		
		400000-195				
		400000-261				
		400000-64	Ikuskapena eta osasungarritasuna	C1		
		400000-142	Hirigintza eta etxebizitza			
		400000-144	Etxebizitzen birgaitzea			
		400000-244				
		400000-109	Berdintasuna			
		400000-262	Kultura			
		400000-139	Herritarren Partaidetza			



		400000-251	Ogasuna			
		400001-6	Hirigintza Gerentzia			
		400001-7				
		404800-2	Gizarte Zerbitzuak			
		404800-3				
		404800-4				
		404800-5				
		404800-15				
		404800-24				
		404800-90				
Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Alorra	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
UDAL BULEGOETAKO MANDATARIA	C	400400-5	Pertsonen kudeaketa		Funtzionarioa	DBHko graduatu-titulua, Eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideak
		400400-21				
		400400-39				
		400400-44				
		400400-45				
		400400-46				
		400400-51				
		400400-52				



		400400-53				
		400400-57				
		400400-54	Ogasuna			
UDAL INSTALAZIOETAKO FUNTZIONAMENDUKO LAGUNTZAILEA	D	402900-14	Kultura		Funtzionarioa	DBHko graduatu-titulua, Eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideak
		402900-192				
		402900-213				
		402900-236				
		402900-237				
		402900-36	Hezkuntza			
		402900-38				



Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Alorra	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
UDAL INSTALAZIOETAKO FUNTZIONAMENDUKO LAGUNTZAILEA (jarraipena)	D	402900-46	Hezkuntza	B2	Funtzionarioa	DBHko graduatu-titulua, Eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideak
		402900-50				
		402900-52				
		402900-53				
		402900-61				
		402900-64				
		402900-69				
		402900-70				
		402900-75				
		402900-79				
		402900-80				
		402900-82				
		402900-88				
		402900-90				
		402900-97		B2		
		402900-105				
		402900-108		B2		
		402900-112				



		402900-126		B2		
		402900-127		B2		
		402900-129		B2		
Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Kokapena	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
UDAL INSTALAZIOETAKO FUNTZIONAMENDUKO LAGUNTZAILEA (jarraipena)		402900-131	Hezkuntza	B2	Funtzionarioa	DBHko graduatu-titulua, Eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideak
		402900-137				
		402900-155				
		402900-193				
		402900-194				
		402900-196				
		402900-198				
		402900-224				
		402900-54	Osasuna eta kirola	B2		
		402900-62				
		402900-161				



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010

www.pamplona.es

		402900-195				
		402900-197				
		402900-199				
		402900-134	Pertsonen kudeaketa			

Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Kokapena	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
HIRI KONTSERBAZIOKO MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA	D	407500-1	Hiri-kontserbazioa		Funtzionarioa	DBHko graduatu-titulua, Eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokideak
		407500-2				
		407500-3				
		407500-5				
		407500-42				
		407500-44				
FAMILIA-LANGILEA (*) (403100) ETA FAMILIA-LANGILEA (*) -LANALDI PARTZIALA- (408200)	D	403100-114	Gizarte Zerbitzuak		Lan-kontratuduna	Gizarte- eta Osasun-laguntzako teknikari-titulua edo Erizaintzako laguntzaile teknikoarena, edo Gizarte- eta Osasun-arta emateko teknikariarena. edo Mendekotasun egoeran daudenei Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Arta emateko Profesionaltasun Ziurtagiria (Kodea: Sscs0208) edo Pertsonen Etxean bertan Gizarte eta Osasun Arta emateko Ziurtagiria (Kodea: Sscs0108), eta horrez gain Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien titulu baliokidea edukitzea.
		403100-115				
		403100-130				
		403100-146				
		403100-148				
		403100-150				
		403100-157				
		403100-169				



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010

www.pamplona.es

		403100-192				
		403100-200				

Lanpostua	Maila	Plazaren zenbakia plantilla organikoan	Kokapena	Nahitaezk o hizkuntza: euskara	Araubide Juridikoa	Eskatutako titulazioa
FAMILIA-LANGILEA (*) (403100) ETA FAMILIA-LANGILEA (*) -LANALDI PARTZIALA- (408200)	D	408200-80	Gizarte Zerbitzuak		Lan- kontratuduna	Gizarte- eta Osasun-laguntzako teknikari- titulua edo Erizaintzako laguntzaile teknikoarena, edo Gizarte- eta Osasun-arta emateko teknikariarena. edo Mendekotasun egoeran daudenei Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Arta emateko Profesionaltasun Ziurtagiria (Kodea: Sscs0208) edo Pertsonen Etxean bertan Gizarte eta Osasun Arta emateko Ziurtagiria (Kodea: Sscs0108), eta horrez gain Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien titulu baliokidea edukitzea.
		408200-132				
		408200-133				
		408200-135				
		408200-137				
		408200-138				
		408200-139				
		408200-140				

(*) Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa behar duten lanpostuak.